

## **EHUn JAZARPENA PREBENITZEKO ETA JAZARPEN KEXAK KONPONTZEKO HITZARMENEAN AIPATUTAKO ARBITRAJE BATZORDEAREN ARAUTEGIA**

### **I. KAPITULUA.- ARBITRAJE BATZORDEAREN OSAERA ETA EGINKIZUNAK**

#### **1. artikulua.- DEFINIZIOA**

1.1.- Jazarpena prebenitzeko eta jazarpen kexak konpontzeko EHUK eta EHUn ordezkariak duten sindikatuek izenpetutako hitzarmenak (aurrerantzean hitzarmena) 14. artikuluan dioenez, Arbitraje Batzordea organo parekidea da, jazarpen kexak aztertu behar dituena. Arbitraje Batzordearen prozeduran demandatzailearen eta demandatuaren arteko desadostasun gaiaren inguruko gertakariak eta/edo argudioak oso-osorik aztertuko dira, jazarpen kexak kontuz ibili beharreko gaiak direla aintza hartuta. Arbitraje Batzordeak EHUKo errektoreari aurkeztuko dion ekintza proposamen baten bidez emango zaio amaiera prozesuari.

1.2.- Jazarpena prebenitzeko eta jazarpen kexak konpontzeko EHUK eta EHUn ordezkariak duten sindikatuek izenpetutako hitzarmeneko 16.2. eta 16.3. artikuluen arabera, Arbitraje Batzordeak ahalmena izango du hitzarmenean aurreikusitako kasuak aztertzeko prozedurari buruzko arauak ezartzeko.

#### **2. artikulua.- OSAERA**

Arbitraje Batzordea sei kidek osatuko dute, hiru EHUn izenean eta beste hiru sindikatuen izenean. Alde bakoitzak bere ordezkariak eta horien ordezkariak izendatuko ditu.

EHUn ordezkarietako bat batzordeko burua izango da eta bestea idazkaria.

Sindikatuaren ordezkariak, berriz, txandakako sistema baten bidez egongo dira (EHUn ordezkariak duten sindikatu guztietako kideak egongo dira), eta sindikatu guztiek prozedura kopuru berdintsuan parte hartzeko moduan txandakatuko dira. Erakunde sindikalek proposatutako ordenari jarraiki aldatuko dira sindikatuak, baina batzordeak aztertu beharreko kexen nondik norakoen arabera.

Sindikatu bakoitzak ordezkari bat eta bere ordezkaria izendatuko ditu, nahiz eta hiru sindikatu hartuko duten parte kasu bakoitza aztertzeko prozesuan.

Sindikatuak proposatutako ordena, zozketaz erabakia, hauxe da:

1.a: LAB, 2.a: STEE-EILAS, 3.a: ELA, 4.a: CCOO, 5.a: CSI-CSIF, 6.a: FETE-UGT

Arbitraje Batzordeko kideren batek bateraezintasuna balu kasu jakin bat aztertzeke, ordezkoa arituko da haren lekuan.

### **3. artikulua.- EGINKIZUNAK**

3.1.- Arbitraje Batzordearen eginkizunak hitzarmenean zehaztutakoak izango dira, eta bereziki honako hauek:

- Helaraziko zaizkion jazarpen kexak aztertzea, hitzarmeneko 13.1. eta 15.1. artikuluek diotenari jarraiki.

- Ekintza proposamena jakinaraztea errektoreari. Proposamen horretan informazio hau emango da:

- a) kasuaren inguruko gertaera garrantzitsuenen laburpen bat, Arbitraje Batzordearen iritziz egiaztatuak izan diren gertaerena hain zuzen ere;
- b) Arbitraje Batzordearen aurrean burututako izapideak;
- c) parte hartzaile bakoitzak azaldutako arrazoibideen laburpen bat; eta
- d) Arbitraje Batzordearen proposamena, auziaren funtsari eta konponbideei dagokienez, eta proposamen hori aho batez onartu zen ala ez.

### **4. artikulua.- BATZORDEKO BURUA**

Hauek dira batzordeko buruaren eginkizunak:

- a) Batzordearen ordezkaria izatea, eta batzordeko buru moduan jardutea bileretan eta lanetan.
- b) Batzordearen bileretarako deia egitea, bileretako buru izatea eta bilerak zuzentzea; eta bileretan aztertuko diren gaiak zehaztea, batzordeko beste kideen proposamenak ere onartuta, halakorik egonez gero.
- c) Batzordearen aktak eta ziurtagiriak ontzat ematea, bai eta azterlanak, bestelako lanak eta ondorioak ere.
- d) Batzordeak hartutako erabakiak tramitatzeko beharrezkoak diren neurriak betearaztea.

- e) Dokumentuak, aurrekariak eta txostenak ematea batzordeko kideei, euren lana behar bezala egin dezaten.
- f) Batzordearen zereginak koordinatzea eta, oro har, batzordeak behar bezala funtziona dezan beharrezkoak diren neurriak hartzea.
- g) Batzordea aztertzen ari den kasuan prozeduraren inguruan sor daitezkeen arazoak konpontzea, batzordeko gainerako kideak kontsultatu ondoren.
- h) Karguari lotutako bestelako eginkizunak, eta batzordeak agindu dakizkiokeenak.

Batzordeko burua ez dagoenean, idazkaria ez den administrazioko kideak beteko ditu haren zereginak.

## **5. artikulua.- IDAZKARIA**

Hauek dira idazkariaren eginkizunak:

- a) Batzordearen aztergaiak prestatzea, batzordeko buruak ontzat eman ondoren, eta bileretarako deiak egitea.
- b) Akten eta erabakien ziurtagiriak egitea.
- c) Batzordearen kanpoko eta barruko dokumentuak tramitatu eta zaintzea, eta batzordeari egingo zaizkion kontsultak erantzutea, berari zuzendu beharko baitzaizkio.
- d) Bileren aktak egitea, euskaraz eta gaztelaniaz. Aktetan honako hauek jasoko dira: aztertutako gaiak eta hartutako erabakiak; eta, baita ere, adostu ez diren puntuak, adostasuna ez lortzeko arrazoia zein izan den azalduta.
- e) Karguari lotutako bestelako eginkizunak, eta batzordeak agindu dakizkiokeenak.

Idazkaria ez dagoenean, batzordeko burua ez den administrazioko kideak beteko ditu haren zereginak; eta, horrek ere ezin badu, Arbitraje Batzordeak berak erabakiko duenak.

## **6. artikulua.- BATZORDEAREN ZEREGINETAN EMANDAKO DENBORA**

Batzordeko kideek batzordearen zereginetan emandako denbora laneko denboratzat hartuko da ondorio guztietarako; hau da, kasuak aztertzen emandakoa, kasuarekin zerikusia daukaten pertsonen elkarrizketak egiten emandakoa, bileretan emandakoa eta, oro har, batzordearen funtzionamenduari lotutakoetan emandakoa.

## **II. KAPITULUA**

### **ARBITRAJE BATZORDEAREN FUNTZIONAMENDUA ETA JAZARPEN KEXAK EBAZTEKO PROZEDURA**

#### ***I. ATALA.- FUNTZIONAMENDU ARAUAK***

##### **7. artikulua.- EGINKIZUNAK AURRERA ERAMATEA**

7.1.- Batzordeak egokitzat hartzen dituen funtzionamendu arauak onartu ahal izango ditu arautegi honetan aurreikusita ez dagoenerako, bai eta arautegia interpretatu eta aplikatzean sor daitezkeen arazoak konpontzeko ere.

7.2.- Dena dela, arautegi honetan jasota ez dagoen guztirako, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean kide anitzeko organoetarako zehaztutakoari jarraituko zaio.

7.3.- Arbitraje Batzordea kide anitzeko organoa da, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko 22.2. artikuluan aipatuetakoa. Hori dela-eta, batzordeko kideei lege horretako 28. artikulua (abstentzioa) eta 29. artikulua (errekusazioa) aplika dakizkieke.

##### **8. artikulua.- DEIALDIA ETA AZTERGAIK**

8.1.- Batzordearen bilerarako deia batzordeko buruak egingo du edo, agindua ematen badio, idazkariak. Bileraren eguna baino bi egun baliodun lehenago jarri beharko dira jakinaren gainean batzordeko beste kideak.

8.2.- Deialdiarekin batera honako hauek bidaliko dira: aurreko bilerako aktaren zirriborroa, aztergaiak, eta aztergai horiei dagozkien dokumentuak (edo batzordeko kideek dokumentuok non eskura ditzaketen adieraziko da).

##### **9. artikulua.- BATZORDEA ERATZEA ETA ERABAKIAK HARTZEA**

9.1.- Batzordea balioz eratzeko honako hauek egon behar dute bertan: batzordeko buruak eta idazkariak, edo euren ordezkoez, eta sindikatuen bi ordezkariak.

9.2.- Batzordeko kideek botoen gehiengo soilaz hartuko dituzte erabakiak. Boto partikularrak eman ahal izango dira eta, baita ere, botoa zeri eman zaion esan eta arrazoiak azaldu.

## **10. artikulua.- AKTAK**

10.1.- Bilera bakoitzaren hasieran oraindik onartzeke dauden gaiei buruzko informazioa emango du idazkariak. Bileraren bukaeran hartutako erabakiak onetsiko dira, hartu badira.

10.2.- Aktan argi eta garbi adieraziko da zein den aztergaietako puntu bakoitzari buruz hartu den erabakia.

10.3.- Aktak batzordeko buruak eta idazkariak izenpetuko dituzte, eta bileran egondako guztiek berretsiko. Arbitraje Batzordeko kide guztiei bidaliko zaizkie aktak.

## ***II. ATALA.- JAZARPEN KEXAK EBAZTEKO PROZEDURA: ARAUAK***

### **11. artikulua.- HASIERA**

11.1.- Prozedurari ofizioz emango zaio hasiera, demandatzaileak jarritako jazarpen kexa bat dela-eta. Kexak 15.2. artikuluan aipatutako baldintzak bete beharko ditu, arrazoiak azalduko dira, eta argi eta garbi adieraziko da zer eskatzen den.

11.2.- Akatsik ikusiz gero, demandatzaileak 10 egun balioduneko epea izango du, gehienera, akatsak zuzentzeko. Halakorik egin ezean epearen barruan, kexa artxibatu egingo da.

Kexa artxibatzen bada, demandatzailea jakinaren gainean jarriko da.

11.3.- Batzordeak kexa ez onartzeko erabakia hartu ahal izango du, salbuespen moduan eta bertaratutako kide guztiak ados egonez gero, baldin eta edukia eta dokumentuak aztertuta ondorioztatzen bada egoera ez dela hitzarmenean aipatzen direnetakoa (dokumentuak batzordeak eskatutakoak izan daitezke -11.2. artikuluko tramitea-, zein espedientean jasotakoak).

Kexa ez tramitatzeko erabakia hurrengo artikuluan aipatzen den aurretiko bista egin baino lehenago hartu beharko da.

### **12. artikulua.- DEKLARAZIOAK**

12.1.- Jazarpen kexa Arbitraje Batzordeari ofizialki jakinarazi ondoren eta akatsak behin zuzenduta, egon badira, batzordeak hasiera emango dio prozedurari: demandatzaileari eta, beharrezkoa ikusten badu, EHUKo organoei eskatuko die egin nahi dituzten deklarazioak idatziz egiteko, horretarako egongo den epearen barruan. Eskaerarekin batera aurkeztutako jazarpen kexaren kopia igorriko du batzordeak.

12.2.- Deklarazio idatziarekin batera bidezkoa iruditzen zaien dokumentazioa aurkeztuko dute, eta hurrengo artikuluan aipatzen den bista egitea ere eska dezakete.

### **13. artikulua.- AURRETIKO BISTA**

13.1.- Demandatzailearen, demandatuaren eta EHUren idatzizko deklarazioak jaso eta gero, Arbitraje Batzordeak aurretiko ahozko bista egiteko beharra dagoen ala ez erabakiko du, aldeek hala eskatuta edo ofizioz. Arbitraje Batzordeak ahozko bistaren inguruan hartzen duen erabakia behin betikoa izango da, eta ezingo da aurkeztu errekursorik erabaki horren aurka. Arbitraje Batzordeak ahozko bista egitea ukatzen badu, ukatzeko izan dituen arrazoi espezifikoak azalduko ditu.

13.2.- Arbitraje Batzordeak bistako akta bat gordeko du. Bistan parte hartzen dutenek akta aztertzeke eta aktaren kopiak jasotzeko eskubidea izango dute.

### **14. artikulua.- INSTRUKZIOA ETA BISTA**

14.1.- Arbitraje Batzordeak 30 egun balioduneko epea izango du, kexa idatzia jasotzen duen egunetik edota akatsa zuzentzen denetik kontatzen hasita, bista egin eta proposatutako ekintzaren inguruan erabaki bat hartzeko. Bistan demandatzailea eta demandatua egongo dira, eta hartuko den erabakia errektoreari jakinarazi beharko zaio.

Baldin eta Arbitraje Batzordeak lan hori 30 egun balioduneko epean ezin duela egin erabakitzen badu, parte hartzaileei jakinarazi beharko die 45 egun baliodunera luzatuko dela epea, gehienez.

14.2.- Arbitraje Batzordeak bistan parte hartzen duen edozeini, edozein unetan, dokumentuak edo informazioa aurkezteko eska diezaioke. Dokumentazio edo informazio hori Arbitraje Batzordeak agindutako epean aurkeztu beharko da.

14.3.- Arbitraje Batzordeak berehala helaraziko dizkie parte hartzaileei dokumentuen edo informazioaren kopiak (bista egingo bada egun hori baino lehenago), nola eta aho batez erabakitzen ez duen informaziorik ez ematea; hori erabakitzen badu, eta indarrean dagoen legeriak dioenari jarraiki, idatziz jakinarazi beharko dizkie parte hartzaileei erabaki horren arrazoiak.

Arbitraje Batzordeak epe bat finkatuko du, parte hartzaileek beren alegazioak aurkez ditzaten. Arbitraje Batzordeak, gainera, adituen aholkuak edo iritziak eskatu ahal izango ditu. Jazarpen kexa bat aztertzean, Arbitraje Batzordeak informazioa eta iritziak eska diezazkieke aldeleari eta Prebentzio Zerbitzuko buruari.

14.4.- Bistan demandatzaileak eta demandanteak hartuko dute parte, ordenan, bai eta bistara deitutako gainerako pertsonak ere.

Batzordeko buruak moderatuko ditu eztabaidak eta parte hartzaileek jarduteko ordena.

14.5.- Bista bukatuta, eta gauzatutako ekintzak ikusita, Arbitraje Batzordeak bilera bat egingo du, entzulerik gabe, jazarpen kexari buruz eztabaidatzeko. Proposatuko duen ekintza errektoreari jakinaraziko zaio, arautegiko 3.1. artikuluan aipatutako informazioa ere emanda.

14.6.- Arbitraje Batzordearen aurreko prozeduran zehar parte hartzaileek keza konpondu eta biek konponbide batera iristea erabakitzen badute, Arbitraje Batzordeko buruari horretarako denbora emateko eska diezaiokete, edozein unetan. Arbitraje Batzordearen aurreko prozesuari aplikatzen diren ekintzak etenda geratuko dira batzordeko buruak emandako denbora guztian, bereziki jazarpen kexari buruzko ekintza proposatzeko epea. Demandatzaileak eta demandatuak jakinarazten badiote idatziz batzordeko buruari biek onartzen duten konponbide batera iritsi direla, Arbitraje Batzordearen aurreko prozedura amaitutzat emango da.

Artikulu honetan araututako bista egin arte baliatu ahal izango dute aukera hori, bai eta bista egiten den bitartean ere, gorago aipatu diren ondorioekin.

14.7.- Arbitraje Batzordeak bistako akta bat gordeko du. Bistan parte hartzen dutenek akta aztertzeko eta aktaren kopiak jasotzeko eskubidea izango dute.

## **15. artikulua.- EKINTZA PROPOSAMENA**

15.1.- Arbitraje Batzordeak parte hartzaileei eta errektoreari jakinaraziko die ekintza proposamena, azterketa edo bista amaitu eta hurrengo 10 egun baliodunen barruan.

15.2.- Errektoreak erabakiko du, bere eskumenen arabera eta ekintza proposamena aintzat hartuta, zer ekintza burutu behar den, eta hartzen duen erabakia berehala jakinaraziko die parte hartzaileei; horretarako 15 egun balioduneko epea izango du, Arbitraje Batzordearen proposamena jasotzen duen egunetik kontatzen hasita.

15.3.- Errektoreak aurreko paragrafoan aurreikusitako epean erantzuten ez badu, Arbitraje Batzordeak proposatutako ekintza ontzat emango da eta loteslea izango.

15.4.- Errektoreak proposamena onartzen ez badu, aldeei eta Arbitraje Batzordeari zehatz-mehatz azalduko die zergatik ez duen onartzen.

## **AZKEN XEDAPENA.- ARAUTEGIA ALDATZEA**

Arbitraje Batzordeko edozein kidek eska dezake arautegia aldatzea, baina Arbitraje Batzordeko kideen gehiengo osoa beharko da aldaketa onartzeko.

eman ta zabal



Universidad Euskal Herriko  
del Pais Vasco Unibertsitatea  
**RECTORADO/ERREKTOREGOA**

---